

Galdera-ikur ibiltariak

Jon Joseba Aizpurua Antia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2008



Zumaiko Udala

*enkar
txanpa*



Galdera-ikur ibiltariak

Jon Joseba Aizpurua Antia

Julene Azpeitia 21. ipuin lehiaketa

2008

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Jon Joseba Aizpurua Antia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Urinda herriko Alde Zaharrean, moja *xaharren* komentuarien gibelego kale estu bezain aldapatsu baten azken muturrean, erdi-ezkutuan kokatua, "Olagarroaren Eresia" txokoa, sortze beretik hasita, elkarte gastronomiko arrunt bat baino gehiago izan zen beti. Egiaz, bertan onartua izateko hiru baldintza ziren nahitaez bete beharrezkoak, urteroko kuota zintzoki ordaintzeaz gain: bata, gizonezkoa izatea; bestea, olagarro lehorraren usainak atzerakorik ez eragitea, eta azkenik, baldintzarik behinena edo garrantzitsuena, istorio harrigarriak edesteko gaitasun berezi baten jabe izatea. Musean jakitea aintzat hartzeko ezaugarri mesedegarria gerta zitekeen arren, ez zen inoiz ezinbestekotzat jo izan.

Urte askotan zehar, larunbatero-larunbatero, nekez huts eginez, hurbiltzen ginen hamabi bazkideok oso gurea genuen "Olagarroaren Eresia" txoko ttipi beste xarmangarrira, bereziki kontakizun zirraragarri berriren bat aditzeko zein edesteko irrikatan.

Bertara barneratzeko, sarbideko higadurak jandako hamabi bat harmailak jaitsi ostean, ertz herdoildutako burdinazko ate astuna makurturik zeharkatu beharra zegoen. *Satorzulo* hartan oina jarri orduko, arnastu genezakeen antzinako garaietako giro berezia, bazkide orok genuen atseginekoa. Han sartzea eta denboran atzerantz jauztega gauza berbera zirela esan zatekeen: XVIII. mendea baino lehenagokoak izan zitezkeen haritzeko sabaiko habe sendoek nahiz aretoko altzari zaharkituek —hots, gogoz landuriko lauburu eta gisako ikur-apaindura anitzeko kutxa galanta, erdigunean lekutzen zen mahai eskerga eta bakartia, beronen inguruan zeuden hamabi jesarlekuak eta garaiera berdintsuko lau arasa ertainek, nagusiki—, askoz ere *modernoagoa* izan ez zitezkeen sukaldeko tresneriak, zilarrezkoak ziratekeen baina zikin kolorea zuten koilara-sardexka haiek eta, batez ere, armiarmen pozerako, areto erdia itzalpean uzten zuen argitasun ahul hark, guban nahiz hara sartzeko ausardia biltzen zuen edozeinengan —gutxitan gertatzen zen gauza, Jainkoari esker—, sortarazi zezaketen halako sentipena.

Edonola, Elkarteko unerik ederrenak afalosteak izan ohi ziren, lauki zuzen moldeko mahaiaren baitan, olagarro-zopa eta ondoren egokitu ziezagukeen guztiaz bapo kontu eman ondoren, hain zuzen ere. Orduan, eta ez lehenago, *akeita*, *txola eta txokorra* adiskide zintzo eta leialen laguntzarekin, nola ez, askatzen baitziren mihiak —era neurritsu batean, betiere—, eta sortzen ongi

atonduriko edesti, kondaira eta istorioak kontatzeko nahiz entzuteko barne-giro aproposa.

Istoriok asmatuak izan zitezkeen, baina ezinbestekoa zen kasu horietan oinarri sinesgarri batetik eraikiak izatea, hots, kondaira gertagarriak behar zuten izan, zentzutasuna eta ahalbidearen mugak zeharka ezinezkoak zirelarik. Alde horretatik, bazkide guztiok ginen egiaz zorrotzak.

Urteen joan-etorrian, mota eta lits anitzetako ehunka esamesa, ipuin, istorio edota narrazio txundigarri zein sinestezinezkoak entzundakoa naizen arren —neronek edesturikoen maila gaintzen zuten haiez mintzo naiz—, eta nahiz eta hautaketa zinez gaitza izan, kontakizun orotatik bat aukeratzeko ezinbesteko tenorean aurkituko banintz, berau, duela hogeit hamar urte jadanik, Urko Aizpitartek —hots, *Azurtza* basetxeko mutilzaharrak—, oparitu zigun bere lehen kontaketaekin geratuko nintzateke.

Orditik hona euri asko egin duen arren, oso gogoan dut Urkok istorio izugarri hura edestu zigun ilbeltzeko azkeneko larunbat gau hura. Harrezkero, Urko berak, makina bat istorio txundigarri kontatu zizkigun arren, lehenengo hark guztion bihotzetan ereitea lortu zuen aparteko erresumin maila hura gaintezinezkoa bilakatu zen denboraren iragaitearekin, beharbada, kontakizunak berarekin zekartzen zehazpen ugariak, nahiko agerian uzten zutelako benetan jaoa behar zuela izan, hau da, Urko berberak bere haragitan pairaturikoa.

Itxura zenez, aipaturiko gau hartan, ohi baino patxaran gehiago edanak izango ginen, izan ere, sexu-harremanak laketgarriagoak izaterako orduan, gizonezkoaren *zeraren* neurriak —zakilarenak, alegia—, garrantzirik bai ote zuen ala ez bezalako gai originala eta hain “gutxi eztabaidatua” piztu baitzen gure artean. Ongi oroitzen naiz, denbora luzez aurkako nahiz aldeko jarrera eta iritziek, balantza orekatsu mantendu zutela —berdindurik ez esateagatik—, funtsezko argudiorik aditzen ez bazen ere, ez batzuen, ez besteen aldetik... Bat-batean, gizakion bilakaera ulertzeko hain garrantzitsua bihurtu zitzaigun galdera filosofiko hura, taxuzko erantzunik gabe hiltzera zigortua zirudien unean, hain zuzen ere, hartu zuen hitza *Azurtza* basetxeko mutilzaharrak, guztiok ezustean harrapatuaz. Egiazki, zuela gutxi “Olagarroaren Eresia” elkarteko bazkide egina, lehen aldia baitzen istorio interesgarriren bat edesteko prest ikusten genuela Urko. Hotz ala bero, beti lepoa estaltzerainoko janzkiak zerabilzkien jite isileko morrosko garai eta gihartsua izaki, denok, gutxiago ala gehiago, hauteman genezakeen berehalakoan aditzera gindoazen Urkoren kontakizunak ez gintuela, inolaz ere, aiherga utziko. Ziurtasunez jantziriko barrundatze haren bultzadaz, isil-isilik geratu ginen guztiok amen batean. Euli baten hegaldia ere entzungo zatekeen lipar hartan, handik igarotzera menturatu izan balitz.

“Jakina kikirrioaren neurriak berebiziko garrantzia duela!”, baieztatu zuen biribilki. “Neroni jazotako gertaera baten berri emango dizuet, gai honetaz izan ditzakezuen zalantza guztiak uxatu asmoz!”, gaineratu zuen jarraian ahots irmo batez, bere begirada aitzinaldeko horman eskegita zegoen koadroan finkatzen zuen bien bitartean. Koadroaren barnean sarturik, elkarrekin bere izena eta izana zor zion aintzat hartzeko neurriko olagarro baten argazkia ederretsi zitezkeen; berau, laugarren saiakera baten ondoren, soilik, ehizatu ahal izan zuten, Munarriko haitzetan, elkarrekin fundatzaile ziren Xabier eta Iñaxio Ubera bikiek, altzairuzko gako banarekin, izerdi patsetan blai-blai eginik eta

besoetan nahiz zangoetan urradura ugari jasan ostean. Munarriko olagarrotzar hark erakutsitako kemenaren eta askatasun-egarriaren ohorez zegoen bere argazia marko dotore batez bildua eta esekia elkartean.

Olagarroaren argazkian soara ainguraturik zuelarik abiatu zen Urko bere kontakizunarekin, hamar urte aurreragoko uda amaieran Hungariako hiriburura, hots, Budapestera burutu zuen bidaiari, berak bizi eta noziturikoa. Garai hartan ez omen zen aurkitzen bere sasoirik onenean Urko: batetik, gaintitu ezinik zebilen zuela gutxi sabeleko minbizi oldarkor batek bere ama beste mundura eramanez izana behingoan; hori gutxi bazen, Irati bere neska-lagunak ere, bien artean landutako lau urtetako ezkongai-harremanei bukaera emateko nahimena azaldu zion bestetik, taxuzko azalpenik eskaini gabe, goizetik gauera. Burua zeharo nahasirik, patxada eta atsedenen premiaz abiatu zen Urko horrenbestez, mundu osoan, besteak beste, "Danubioko Bitxia", "Ekialdeko Paris", "Bainuetxeen Hiria" zein "Ur sendagarrien Hiriburua" gisa ezaguna zen Budapest hiri ikusgarrira, bertako bainuetxeren baten ur beroetan soina murgilduaz idoroko zuelakoan arimaren bakea.

"Atsedean bila hain urruneraino zergatik atera nintzen galdegiten bazabilzkidate, aitortu behar dizuet neuk ere ezin diezazuekedala itxurazko erantzunik eman...", adierazi zigun lehendabizi Urkok, gehienok gogoan genuena irakurriaz. "Beharbada bidaiari hura aurrez hainbat alditan Iratiarekin batera egiten nuela amestu izanak, orduan uste nuena baino zerikusirik handiagoa izan zuen erabaki hura hartzerakoan... Dena den, horrek jada ez du inolako garrantzirik!", ozenki egindako hausnarketa bat zirudien berba haien ondoren, Urkok etenaldi bat egin zuen haserako ohiko eztarriko lehortasuna, Nafarroako patxaran gorriari zurrutada luze bat emanez leuntzeko asmoz; ordurako bazkide guztion arreta erakartzea lortu zuen, berak aitortu ezean, gutako inork —neue barne—, oso nekez irudikatu ahalko baikenuen inoiz bere basetxetik urrun. Ziurrenez, Joxe bere anaia zaharraren eskuetan utziko zuen baserriaren ardura, bidaiak iraun zion bitarte horretan...

"Budapesteko aireportutik erdigunerainoko aintzakotzat hartzeko 17 kilometroko tartea taxian eginda, gizurenei eskainitako *Hösök Tere* enparantza ospetsutik oso gertu, laku bat eta guzti zuen parke zabal baten erdian kokatzen zen —eta garai hobekak ezagutu zituen—, *Gyáva Hattyú* zeritzon lau izarretako hotelean lekutu nintzen, uda bukaerako eguzki-dindaiatzko goiz hartan...", jarraitu zuen Urkok. "Zegokidan hirugarren solairuko laugarren gelan sartu eta leihotik so egitean, lehenengo behatu nuen gauza galdera-ikur ibiltariak ziruditen zisne zuriak izan ziren, lakuaren ur gainean harat-honat zebiltzalarik, era galant eta panpox batean, lakutik at gerta zitekeen oroz aiherga, antza... Opor-egun haiek amaitu zitezkeen baino lehen, neuk ere zisne zuri haietako bat bilakatu behar nuela zin egin nion neure buruari, nola gogoia, hala arima makalarazten zizkidaten buruhauste guztiak baztertzeko gai izatea lortu behar nuela, alegia!", erantsi zuen Urkok, bihotz-hasperen bat jaurtitzea ezin saihestuta.

"Aurrenengo hiru egunetan, sosegu bila hirian barrena oinez burutu nituen ibilaldi luzeetan, bi inguruabarrek erakarri zuten bereziki nire arreta: alde batetik, nonahi dorretxe eta jauregi dotoreak miretsi zitezkeen arren, hauetako asko, lehenbailehen eraberritu ezean, aurki behea jotzeko zorian izango zirela erraz nabari zatekeen; diru-eske ez bazebiltzan ere, edonon behartsu ugari ikus zitezkeen, bestalde. Eskean ez aritze hori, apika, ibiltari kanpotarrak ez uxatzearen zorrozki ezarritako debekuren baten ondorioz izan zitekeela

gogoetatu nuen, egiaz, polizia-agenteak erruz ikusi baitzitezkeen karrika orotan zehar sakabanaturik, zelatan baileuden. Lurralde hark urte askoren buruan jasandako gobernamentu komunista zapaltzaileak zerikusi handia izango zuela ondorioztatu nuen bi zertzelada haiek ulertzerako orduan”, zehaztu zuen Urkok.

“Amaierarik gabeko nire txango haietako batean, itxura zarpailtsuko adineko emakume bat ikustatu nuen, erdigunean Sissi enperatrizaren estatua xume bat gordetzen zuen parke kaskar bateko jarlekuetako batean jesarrik. Gajoak bere ohea osatzen zuten kartoizko kaxa batzuk zituen alboan, jesarlekuaren gainean. Bere bisaiak nire ama zendua gogora ekarrarazi zidan. Errukiturik hurbildu nintzaion eta aitzinaldean Hungariako *Károly Róbert I* erregearen irudia zuten 200 florinetako hiruzpalau billete luzatu nizkion. Koitaduak harriturik hartu zidan ezusteko emaria, esker onez jantziriko soara bat itzuliaz trukean. Halere, berehala begiratu zuen ingurura kezkatu. Bakartegi hartan, gutaz gain, zuhaitzian alaiki txioka zebiltzan txoriñoak beste bizidunik ez zegoela ziurtatu ondoren, negar-malkoak isurtzear, zekien ingeles apurrarekin arretaz ibil nendila aholku eman zidan, nonahi zebiltzan Polizia Politikoa Saileko agenteekin —hungarieraz, *Allam Vedelmi Osztaly* edo *AVO* bezala ezagunak zirenak—, haietako gehienak negozio makurretan leporaino nahasiak zebiltzalako; usteldura maila hainbeste omen zuten baitaratua, zein behartsuei lapurtzeko inongo kontzientzi arazorik ere ez zuten izaten. Batez ere kontu izan nezala *Gyula Kassák* izeneko kapitain batekin, aski ezaguna maluruski bere ankerkeria eta basakeriengatik... Aitortu behar dizuet, hitz haiek aditzean, emakume errukiorra burutik eginda egon ote zitekeen zalantza izan nuela, halaber, badaezpada, gajoa lehenbailehen agurtzea ebatzi nuen, inongo arazorik sortu ez niezaion. Nire ibilbidearekin jarraituz horrenbestez, Sissi enperatrizaren omenez eraikitako *Erzsébet Hid* zeritzon zubi zurirantz abiatu nintzen Danubio ibai itzaltsua hamaikagarren aldiz zeharkatu asmoz, lehengo toki berean utziaz emakume txiroa, arestian baino zertxobait aberatsagoa, halere; etengabeko kirieleisonen antzera, “*Thank you very much, gentleman!*”, errepikatzen ziharduen bitartean aldendu nintzaion...”, Urkoren kontakizunean erabat barneraturik genbiltzan guztiok ere jadanik, ezbairik gabe. Irati —hots, Urkoren andregai ohia—, hizkuntza-irakaslea zenaren jakitun geundenez, Urkori ea ingeles hizkuntza menperatzen zuen galdetzea ekidin genuen, sentsibiltate apur bat bagenuela erakutsita.

“Aipatu berri dizuedan pasartearen biharamunean, goiz-goizez, ostaturik nengoen hoteleko harrera-lekuko emakume adeitsuaren aholkuei jarraiki, *Gellert* zeritzon mendiaren oinpean kokatzen zen izen bereko bainuetxe ospetsura zuzendu nintzen, ezinbestekoak ziren bainu-jantzia, eskuoihala, tximela eta txinalak eramanez. Egia esan, neure burua lasaiago topatzen nuen eta ur sendagarrien eragipen onuragarriek oraindik hobeto sentiaraziko nindutela otu zitzaidan. Greziarren garaikoak ziruditen bi solairuren garaiera zuten haitzurdinezko hogeitatu zutoinez nahiz ortzia ikusten uzten zuten margo biziko beiratez inguratua, *Gellert* bainuetxeko barnealdeko ur osagarrien igerilekuak, aurreko mende hasierako luxuzko gizartera garraiatzen ninduela sentiarazi zidan hasiera-hasieratik. Sarrerako horman esekiriko taula batean, urak 36 gradu zituela eta menditik zuzenean zetozen kaltzio, magnesio, sulfato eta beste zenbait mineral onuragarri osatua zegoela irakur zitekeen. Eta hantxe, urastoki estali hartako ur beroetan pulunpatzen nenbilerarik, , jada ezagunak nituen Danubio ibai arranditsua erreka arrunt, neogotiko egikerako Parlamentuaren eraikuntza txundigarria, berriz, erdipurdiko txabola koxkor, eta Errege Hungariarren Jauregi Ahaltsua, aldiz, hondarrezko gaztelu bihurtzen

zituen gailenezinezko arte-monumentu ibiltaria behatu nuen, hots, jainkosa greziarrak ere jeloskor jarriko zituzkeen edertasun paregabeko neskatala ilehori bat, gune estrategikoenak doi-doi estaltzen zizkion bikini gorri ñimiño batez hornitua, uretan sartzeaz zen une berean, ur sendagarrien berotasun mailak gorantz egin zezala eraginez. Izan ere, nireaz gain, gainontzeko gizasemeen begirada gutziatsuak ere neskato miresgarri haren neurri bikaineko soinean ainguratuak geratu baitziren. Zeuden emakume bakanak ere, betertzez bekaizkor so egitea ezin izan zuten saihestu...”, Urkoren berbaldia etenez —ongi dut gogoan—, Jaxinto Aurtenetxe pilotari ohiak hartu zuen hitza, oraindik ere erreflexu erne eta bizkor batzuen jabe zela erakutsiz: “Une bat, une bat *Azurtza!* Igerilekura tximela jantzirik sartzea beharrezkoa bazen, nola arraiopola hekien neskatoa ilehoria zela?”, *bi paretakoa* luzatu zion Urkori, honen kontakizunaren benetakotasuna zapuztu asmoz.

Jaxintoren ezusteko pilotakada bortitza, lipar batez uste izan genuenaren aurka, inolako eragozpenik gabe jasotzeko gauza izan zen Urko; alderantziz, bere jitean ez zitzaion inolako eraldaketarik ere nabarmendu, begietako uzkurdura ttipi bat izan ezean, “Ongi ari haiz Jaxinto, barkatu ezak, nire hutsegitea izan baita neskatalak zeraman tximela, plastiko garden horietakoa zela zehaztu ez izana!”, erantzuna luzatu zuenean. “Uretan sartu eta lauzpabost besakada igerian eman ostean, nigandik pare bat metrora geratu zen *jainkosa* hura, niri begira-begira, aurpegian txertatuak zituen orlegi koloreko bi esmeralda haiekin, nigan burutik oinetaraino zeharkatu ninduen atseginkoitasun-hotzikara bat eraginez. Gibelean nuen morroi batek, ahots arduratsu eta ingeles traketsago batez “*Kontu izan, Mantis Erlijosen Sektakoa duk eta!*”, berba zentzugabeak belarrira xuxurlatzen zizkidala ohartu nintzen, alabaina, jeloskortasunetik jaiotako hitzak zirelakoan ez nion jaramon handiegirik egin. Alderantziz, ausarkiro jokatzuz, neskatoaren begiradari eutsi eta begirunezko begi-keinu bat luzatu nion, trukean, gehienez jota ere, irriño bat itzuliko zidalakoan, beste gizasemeen mirespenezko soaren bila urrundu aurretik. Neskatalak ordea, bere aldetik, bikiniaren kolore biziarekin bat zetozen ezpain mamitsuen artetik mihia atera eta lizunki zirkindu zuen berau, irudimenezko izozki bat —edo antzeko beste zerbait—, miazkatzen bailebilen, nigana gehiago hurbilduaz, poliki-poliki. Igurikigabeko erantzun hark zurtz eginik utzi ninduen, egiaz, neskatoa nirekin jolasean zebilela igar nezakeen arren, noraino iritsi nahiko ote zuen asmatzeko gauza ez bainintzen. Kinka hartan, olagarro ttipi batek bere erroekin barrabilak atxiki izan balizkit bezalako zirrara bat sentitu nuen. Nire harridura bisaiaz ohartzean, neskatoak bere ezkerreko eskuko hatz erakuslea jarri zuen nire ahoan garrasirik jaurtiki ez nezan. Orduan konturatu nintzen erroak, neskatalaren eskuin eskuko hatzak behar zutela izan. Inguratzen gintuztenon suzko begiradak guri zuzenduak ez bailliran, neskatoak bere zereginarekin zerraien: bere hatzek nire bainu-jantziaren harresia gainditu ostean, gazteluko erregea atxilotzea lortu zuten —hots, nire kikirria, uler nazazuen—, jarkiera handiegirik gabe, egitari men eginez. Nire zakilari emeki-emeki eragiteari ekin zion, hala jarraituz berau erabat tente eta gogor jartzea lortu zuen arte. Bitarte horretan, igerilekuko ur-zorrotadek eraginiko aparrak, begiluzetatik babestuko gintuela sinetsarazi behar izan nion neure buruari, duintasun apur bati euste aldera. Halaber, estasiaren atera iristear nintzen une hartan bertan, neskatoak azkenik jolasa amaitutzat eman zuen, antza, eta igeritokitik ateratzea ebatzi zuen, besterik gabe, niri sorbalda eskainiaz. Zorionez, pentsatu nuen nirekiko, jolasaldi hura deigarriegia gertatzen ari baitzen... Halere, ezin izan nuen ekidin nire begirada neskatoaren ipurmasail

zut-borobiletan finkatzea, uretatik ateratzen zen bitartean. Egoera ahalkegarri hartan atzeman ninduen ustekabeen biratu zenean, niri buruarekin keinu arin bat zuzendu asmoz. Ez zen batere harritu nire soararen norabideaz, guztiz alderantziz, ziur nago bazekiela halaxe harrapatuko ninduela. Imintzioa arina, ia sumaezinezkoa izan zen arren, argi zegoen bere esanahia hitzez hitz “Itxaron iezadak kanpoan, jolasarekin jarraitu nahi baduk!” zela, hain zuzen ere... Neskatoaren atzetik igerilekutik atera nendin baino lehen, hiruzpalau minutu egin behar izan nituen bertan, bainu-jantzia kanpadenda bilakaturik nuenez gero...

Dutxa hotz bat hartu bitartean, alperrik saiatu nintzen neure burua lasaitzen. Jira-bira askoren ondoren, *Gellert* bainuetxeko sarrerako harmailak jaisten hastearekin bat, adimenak azkenik, neskatoaz ahaztu nendila eta handik hanka egin nezala aholku eman zidan. Beranduegi. Ez nuen horretarako aukerarik izan...

Igerilekuan nirekin jolasean aritu zen neskabila hura, han zegoen jada nire zain, bere adats beilegi kiribilduarekin egoki uztartzen zen *Chevrolet Corvette* luxuzko deskapotagarri batean euskarriturik: fantasiako irudiz hornituriko zetazko blusa beltz mahukamotza eta erdi-gardena zeraman, bere diti aske eta tenteen mardultasuna antzematea zilegitzen zuena; kolore bereko larruzko minigona minimalista, zilarreztatutako uztaietz osaturiko gerrikoarekin, eta orratz-takoizko kremailezko bota garaiak, beltzak baita. Pantera beltz bat zirudien zinki. Ikustatu ninduen orduko jauzi zitzaidan gainera, hungariar erara musukatuz —hau da, hiru musu masailetan, txandakaturik, eskuinekotik hasiz—, aspaldiko ezagunak baikin. Zerion lurrin usain goxoak altzairua gurin ere bihurtuko zukeen. Jarraian, unerik galtzeke, ingeles akademiko garbi eta garden batez mintzatuz, lerro bikoitzean zuen deskapotagarrira sar nendin gonbidatu ninduen. Haiek ziren entzuten nizekin lehen hitzak, ordura arte ez bainekien ingelesez mintzatzeko gai zenik. Amy Grudke omen zuen izena. Eslovakiarra. Bratislavakoa, zehazkiago. Ahots melodiatsu eta eztitsua zuen zinez Amyk. *Gellert* bainuetxea oso gogokoa zuela eta ahal zuen guztietan egiten omen zuen harantz ihesalditxoren bat. *Mantis Áhitatosa* izeneko diskoteka batean —hots, *Mantis Erljijosa* hungarieraz—, aritzen zela go-go dantzari gisa, Arte Ederretako unibertsitate-ikasketentzako diru pixka bat lortze aldera. Ni begiztatu orduko fisikoki erakarria berehalakoan sentitu zela, ezin izan zuela saihestu; oster, ez nezala pentsa mesedez, emagaldu bat edo antzekorik zenik. Hura guztia, hogei bat udaberri biziak zituenaz gain, jarraian eta akatsik gabe azaldu zidan, ni ahozabalik —eta lelo aurpegiarekin suposatzen dut—, nerrai bitartean. Konturatzerako, luxuzko ibilgailuaren gidakidearen jarlekuan nintzen. Une batez, diskotekaren izena oso deigarria ez ezik, arduragarria ere gertatu zitzaidan arren —igerilekuan norbaitek eman zidan oharpenarekin izan zezakeen loturagatik—, batetik, Amyren hitz-jariorik, ibilgailua abian jarri zenean gaineratu zitzaigun haize-boladak, bestetik, kezka guztiak uxatu nitzala lortu zuten. Izan ere, haizearen eraginez, Amyri blusa gorputzean itsatsirik geratu zitzaion, bularretako orografia menditsua bere osotasunean miresteko egokiera paregabe nintzelarik, mendi-tontorrek barne —hots, bere ditiburuaz ari natzaizue—. Amyk bere berbaldiarekin zerraien, beste neska batzuekin hiritik kanpora zegoen landetxe batean bizi zela azalduaz, garai batean jauregi moduko eraikina izana, eraldapen eta egokipen garabide baten ondoren, bera bezalako neskabila unibertsitarioentzat atondua izan zela zehaztuz, bainu-zerbitzua zuten bakarkako logeekin. Sukaldea eta saloia egoitzako ikasle guztientzat erabilgarri zeuden. Harantz omen gindoazen “ongi pasatzeko”

asmoz, alabaina lasai egon nendila, gelak banakakoak zirenez gero — azpimarratu zidan berriro—, intimitate osoa izango genuela eta. Amyk eufemismoz beteriko hizkuntza zerabilkien arren, argi nekuskeen burdel baterantz ninderamala. Nire begirada Amyren bularretatik kentzea lortu nuen tarte labur batean, aireportutik taxiz egindako bidatze berebanean gindoazela antzemateko gai izan nintzen, aurkako noranzkoan. Aireportura iritsi baino zazpi bat kilometro lehenago, ordea, Amyk ezkerretarantz zihoan bigarren mailako errepide bat hartu zuen, non AVOKo Polizia Politikoa Sailaren egoitza gertu lekutzen zenaren kartel bat behatu ahal izan nuen. Lipar batez nire ama zenduaren antza zuen amonaz oroitu nintzen. Halaber, Amyrantz zuzendu nuenean nire soara, berehala ahaztu nintzen gajoaz. Haizekadak Amyren adats luzearekin zerraien jolasean... Zera, adatsarekin zein blusarekin...

Aldiune batean, *Gellert* izena, bai bainuetxeak, bai muinoak, Erdi Aroan eraila izan zen izen bereko gotzain baten oroimenez zeramantela adierazi zidanean Amyk, aurpegieran irriño bat marraztu ote zitzaionaren irudipena izan nuen, gertakizun hartaz zerbait gehiago jakinen balu bezala... Ahoa zabaldu nuen argitasunen bat eskatzeko asmoz, baina une hartan igerilekuko olagarro jostalariaren erroak sentitu nituen berriro lehengo toki berean eta ondorioz, ez nintzen ezer esateko gai izan. Geroxeago, bihurtuz jositako errepide zati batean sartu ginenean, olagarroa bere gordelekura itzuli zen...

Ordu erdi batean iritsi ginen kanpotik espetxe baten tankera zuen landetxera. Landaretzaz inguraturiko eraikuntza gris-goibelaren aurreko aparkalekuan itzali zuen ibilgailuaren motorra Amyk. Eraikineko beheko solairuan, taberna eta saloi zabal bat zeuden; azken hori alde batetik besteraino zeharkatu behar zen goiko solairuetarantz zihoazen eskailerak nahiz igogailua hartu ahal izateko. Aretoan Amyren patro bereko hamar bat neskato zeuden, zein baino zein ikusgarriagoak —hilak pizteko modukoak—, berbetan nahiz edariren bat hartuaz, zeregin ezean, asperturik baileuden. Beren haragizko soara lizunen zaparradapean katukien tartetik igarotzera zihoan ehizaki bat bezala sentitu nintzen. Tabernako bozgorailuen bitartez, Rod Stewart-en "*Do you think I'm sexy?*" abestia entzun zitekeen une hartan. Amyk ez zidan inor aurkeztu, alderantziz, eskutik helduaz bizkor gidatu ninduen igogailuraino, harrapakinak jabea bazuela erakutsiaz gainontzeko piztiei. Igogailuan sartu orduko bortizki musukatzen hasi zitzaidan, Rod Stewart "*If you want my body and you think I'm sex, come on, sugar, let me know!*", oihukatzen zebilen bitartean. Igogailuak gora egin ahala, letren ozentasuna ahultzen joan zen. Arnasa ozta-ozta har nezakeelarik, hirugarren solairura iritsi ginen halako batean. Laugarren gela zen Amyrena, hots, 304. gela, ostaturik nengoen hoteleko nire gelaren zenbakia bezala; nirekiko hura oso baterakidetasun bitxia zenaren gogapena egin nuen... Amyren gela txikia zen; eskukaturiko liburuz gainezka zeuden hamaika apalez gain, tokirik gehiena ohe eskerga batek hartzen zuen. Neoklasiko tankerako apainduz jositako zurezko oheburua eta ohazal ilun bat zituen oheak. Eraikinaren giro muzinarekin bat zetozen azken batean, bai ohea, bai gainontzeko altzariak. Gelako leiho bakarrak trangak zituen. Zurezko leiho-tapak zabaldu eta beherantz so egitean, aparkatokitik gertu zegoen igerileku olinpiar bat ikusi nuen, non neskato haietako batzuk guztiz biluzik bustitzen zebiltzan, beste batzuk, aldiz, igerilekuaren inguruko zelaigunean zeutzan artean, berdin jantzirik, eguzki ahulari izpi batzuk ebatsi nahian, antza. Nire hoteleko gelako leihotik ikus nitzakeen zisne zuriak bezain patxadatsu eta ezerean axolarik gabe zebiltzala ziruditen...

Hozkailu txiker batetik lau izotz puska atera eta Budapesten tipikoa omen zen fruta-pattarrezko edari bi prestatu zituen di-da batean Amyk. *Palinka* izenez ezaguna, graduazio-maila handiko edabea omen zen, Whisky eskoziarraren tankerakoa. Senak erne ibil nendin igorri zidan mezuari jarraiki, tantarik ere ez dastatzea ebatzi nuen, badaezpada. Amyk trago luze bat hartzen zuen bitartean, nik edalontzia ahora hurbildu eta ezpainak busti baino ez nituen egin, edalontzia bere gibelean zetzan mahai txikerraren gainean utziaz. Igogailuan hasitako musuei jarraipena emanez, Amyk bere blusa erantsi zuen —jadanik ezagunak nituen titi biribil eta mardul haiek erabat aske utziz—, eta nire aurrean belaunikatu zen ezustean. Bere begiak nireengan ainguratuak zituelarik, gerrikoa askatu eta galtzak nahiz galtzontziloak jaitsi zizkidan, esku biek nire kikirrio ekurugaitza heldu eta emeki-emeki eragiteari ekin zion. Amyren mihi jostalariak zakilburua berehalakoan gori-gori jar zedila lortu zuen. Miazkadei zurrupadek jarraitu zioten. Gero eta sarkorrakoak ziren zurgapen kitzikagarri haiek eragin ziezadaketan ur-jauzi laster bat saiheste aldera, nire begirada leihotik at ikus zitekeen paisaia menditsurantz zuzendu nuen, lasaitasun izpiren bat bilatu nahian. Amyk amore eman behar izan zuen azkenik, nire kikirriotzarra bere osotasunean eztarrian barrena irensteko saiakeran, hain luze eta guria izaki berau —*ejem*, apaltasuna alde batera utzita—. Arnasa hartzeko zituen zailtasunak tarteko, erdialderaino soilik barneratu ahal izan zuen Amyk nire tramankulua, etsiturik zutitzeko erabakia har zezan baino lehen. Minigona kendu zuen jarraian. Beronen azpian ere ez zeraman ezer. Bitxigile berberaren eskuetatik igarotakoak izango ziren belarritakoak, lepokoa eta eskuturrekoaz gain, soinean takoi handiko botak bakarrik zeramatzalarik geratu zen. Neskatoa hala ikustea erabat nahigarria gertatzen zitzaidan...

Ni baino garaiagoa zen Amy, takoei esker irabazten zituen hamar bat zentimetroak aintzat hartu gabe ere. Bizkarra emanez jarri zitzaidanean egiaztatu ahal izan nuen zein emakume lerdena zen. Sorbaldak bere izena galtzen zuen tokian tatuaiak ttipi bat zuen Amyk, "M" hizkia handiz, tankera gotiko batean marraztua. Xehetasun hura deigarria gertatu zitzaidan arren, une haietan ez nintzen gai ezer zentzuzkorik ondorioztatu ahal izateko. Gainera, orduan Amy katamar jarri zitzaidan ohearen gainean, neoklasiko tankerako oheburuari begira, eta ipurdia eragiteari ekin zion. Ipurmasail bakoitza berezko bizitza baileukan higitzen zen. Larregia zen hura. Eroanezinezkoa. Izan zitekeenik ere, inoiz amestu izango ez nukeen gozamenezko goren maila batean murgildurik, nahieraz horditurik, nire eskuekin ipurmasail jostariak atxiki eta nire kikirrio kankailua sumendiaren ahoan barneratu nuen, ezpain hanpatuen erditik bidea irekiaz. Barruraino. Eta izpi batean atzera, lukainka oso-osorik kanpora atera arte. Ondoren urrats berdinak jarraituz, berritan barneraino, helmugaraino heldu arte, eta itzulera ostera. Jarduera bera behin eta berriro errepikatuaz, sartu-irteneko inarrospen bortitz bakoitzarekin Amy gozamenez oihuka jarrarazten nuen. Arreske zegoen katukia zirudien. Talkada bakoitzarekin intzirriak gero eta ozenagoak bilakatzen zihoazen. Eztanda unea ahalik eta gehien luzatzearen, berriro ere nire soara, leihoa zeharkatuz, landetxea inguratzen zuten oihan eta landaretzan ainguratzen saiatu nintzen gogoz. Era hartan nire zereginean automatikoki jardun izan nuen denbora luzez, bertan ez banengoen bezala, autista bat banintz lez. Baliabide hura halere, ez zen betierekoa. Berandu izan zedin baino lehen, Amyri ea kondoa jar nezala gura zuen galdetzea ebatzi nuen. Asmo horrekin nire begiak aurrerantz zuzendu nituen unean, ozta-ozta, irudi lausotu baten eran nabarmendu nuen nire

aurpegirantz zuzenduriko Amyren ezkerreko besoaren mugimendu azkar bat. Mugitzeko astirik ere ez zidan eman. Besoa urrundu zuenean soilik antzeman nion labana zeramala eskuan. Amesgaiztoren batean harrapatuta eldarniatutik ote nenbilen oldoztu nuen. Alabaina, lepoan bat-batean sentitu nuen epeltasunak gertaeren benetakotasunaz ohartarazi ninduen. Horregatik, aurkako noranzkoan ibilbide lerromakur bera deskribatuz zetorkidan bigarren labankada, atzeraka burutu nuen jauzi azkar batez ekiditeko gai izan nintzen. Ohe gainean zutiturik, labana eskuan eta begirada basati-ero harekin, zinez Amyk itxura beldurgarri bat zerakutsan, drogaturik bailegoen. Ea zer jazotzen zitzaion galderari entzungor eginaz, nire gainera egin zuen jauzi, piztitzar baten moduan. Orratz-takoizko botekin lurzorua ukitu zuen bezain laster, nire indar guztiekin bultzatu nuen Amy, itsumustuan. Oreka galdurik atzerantz jaustean, bere buruak leihoko trangekin egin zuen tupust. Konortea galdurik erori zen zorura. Une bat behar izan nuen gertatuko oro neureganatzeko. Labana neure eskuetan hartu nuen suspertzeko gai izan nintzenean: urrezko tartekapenak zituen daga edo sastakai bat zen. Heldulekuan hornidura berezi bat zeramala ohartu nintzen, urrez landuriko "M" hizkia handiz, Amyk gorputzean zuen tatuaiaren berdin-berdina, egin eginean ere. Nire adimena abiadura zorabiagarri batean jarri zen lanean: *Gellert* bainuetxeko oharpenaz oroitu nintzen... Amy *Mantis Erlijiosen Sektakoa* zela onartuz gero, landetxe hartako gainontzeko egoiliarrak ere hala-moduzkoak izan zitezkeela ondorioztatzera heldu nintzen. Burua irakitear nuelarik, zentzuzko erantzun baten bila, apaletan zeuden liburuetatik gehien marruskatua zirudiena hartu nuen; azalean eliza baten irudia azaltzen zen, honen aitzinaldean *Mantis Erlijiosa* zomorro bat nabarmendu zitekeelarik otoitzean bailegoen. Ingelese zegoen idatzirik, dohatsuki. Burutu nuen gainetik irakurketa lasterrak nire aieru ilunenak ere erruz gailendu zituen. Aipatzen ziren Erdi Aroko jazoera batzuen bidez, *Mantis Erlijiosen Sektaren* jatorria edo sorburua, bart arratseko kontua izatetik urrun, oso antzinakoa zela jakin izan nuen. Liburuxkaren atalburu ezberdinetan zehar, sektaren oinarrien nondik norakoak zehatz-mehatz azaltzen ziren; ez zaituztet aspertuko ezaugarri ororen berri emanez, alabaina, jakin ezazue izen bereko zomorro emearen jokamoldea eredutzat hartzean zetzala sektaren funtsa edo sustrai nagusia. Aurrenengo ataletan zehazten zenez —eta agian zuetako gehienok jakingo duzuenez—, *Mantis Erlijiosa* zomorro harrapari emeak, aurreko hankak tolesturik dituztelarik egoten omen dira geldi-geldirik, zirkinik ere egin gabe, beren harrapakinen zain, errezoan baileuden. Hurbiltzen zaizkien mamorroek, heriotza eragingo dien zartatekoa sumatzeko ere gai ez omen dira izaten, Mantisaren kolpearen abiadura hain bizia izaki. Emeak baino txikiagoak omen diren Mantis arrek ere harrapakin maila edo kategoriatik ez omen dira oso urruti ibiltzen, izan ere, maiz estalketa unean emeek irentsi egiten baitituzte; estalketaren unerik bizi eta hunkigarrienean, ezustean emeak arrari lehendabizi burua, eta gainontzeko guztia ondoren —hegalak izan ezik—, jaten omen dizkio. Erromantizismo hutsa, ederretsi dezakezuen. Ar errukarriek oso gutxitan izaten omen dute emeen kanibalismo horretatik ihesteko aukera... Naturan zomorroen artean gertatzen den jokamolde hau gizakion munduan ezartzeari zor zion, beraz, *Mantis Erlijiosen Sektak*, bere izatea: aldi bateko maite-suaren truke —hots, une batez paradisua lurrean ezagutzearen permutan—, bizia jokoan jartzean. Jolas moduan. Hizki-molde gotikozko "M" hizkia soinean tatuaturik —zein burdinaz xakiturik antzina—, zeramatenak sektako kideak zirela adierazten omen zuten; horrenbestez, beraiengana hurbiltzen ziren koitaduek, bizia galtzera heldu zitezkeela —ziurrenez galduko zutela, hobeki azalduz—,

jakinaren gainean egon beharko zuketena... Noski, horrek jolasketaren arauen ezagutza handi xamarra eskatzen zuen, nire kasuan inozoki gertatu ez zena, egin zidaten oharketari eskaini nion arretoa hutsalagatik batik batik. Erruleta Errusiarraren zantzuak zituen jostatze anker eta odoltsu hark, bestela ezin izan zitekeenez, "*Mantisaren Jokoa*" omen zeritzon.

Hungarieraz idatzirik zegoen bigarren idazki batean, irudien bidez sexu-harremanak izan bitartean gizonoi lepoa mozteko teknikak zehazpenez deskribatzen ziren. Daga berezi baten erabilera ohikune edo erritualaren zati bezala agertzen zen. Erdi Aroko *Gellert* apezpikuaren erailketaren aipua ere bazekarren, agerian utziaz sektaren esku-hartzea gizajoaren dohakabeko amaieraren atzean. Gotzainari buruz mintzatu zenean, Amyk zerakutsan begitarte alaiaz oroitzeak goragalea eragin zidan... Atoz-atoan, zabaldurik nituen orrietara nonbaitetik odol-tantak isurtzen zirela ohartu nintzen. Amyk lepoan eragin zidan zaurian zuten bere jatorria. Bainugelan sartu eta dutxa azkar bat hartu behar izan nuen, oharkabean odol-orbainak soin guztian zehar hedatu zitzaizkidanez gero. Lepoko zauria alde batetik besterainokoa zen arren, zorionez ez zirudien sakonegia. Odol-jarioa gero eta txikiagoa zen bederen. Amyk konortea berreskuratu zezan baino lehen zerbait pentsatu beharra neukan. Leihotik ez zegoen ihesbiderik eta eraikineko sarbidetik aretoa zeharkatuz lasai-lasai irten ahal izateak —hasieran zisne zuriak gisa irudikatu nituen putre sarraskijale haien artetik—, zeharo ezinezkoa zirudien... Hitzetik hortzera, zentzugabeko burutapen bat izan nuen. Erokeria bat zen, baina ez nuen besterik. Zirt edo zart egin beharra bainean. Odol-jarioa guztiz geratu zitzaidan une berean jarri nuen abian nire buruera edo burugabekeria, hobeto esanda...

Biluzik, eskuoihala sorbaldan jarriaz, atera nintzen ibilgura, eta igogailuan arin sartu. Beheko solairuan balantzaka, mozkorraren plantak eginez, eta garai hartan modan zegoen Miguel Bosé-ren "*Super Superman*" kanta itsaskorra aho betean abestuz atera nintzen, bozgorailuetatik entzun zitekeen soinuaren hots-maila gailenduaz. Okotza uzkurtuz, lepoko zauriaz ohar ez zitezen, presarik gabe, hasi nintzen aretoa zeharkatzen, sai bakoitzari, kantarekin tartekatuz, ahalik eta begirada haragikoiak eta ingelesez nekizkien hitz lizunkoiak zuzenduaz. Eskuoihala Supermanen kapatzat harturik, hegan nenbilena antzetzuz eta nire kikirio galanta erakusgai nuelarik, saien soara harritu eta irriñoen artean bidea irekiaz nindoan, "Superman igerilekura doa bainu bat hartzera, *hip!* Nor dator nirekin, *hip?*", galdeginaz, astiro-astiro, noraezean bezala. Hasieran, saiak ez ziren mugitzera ere ausartzen, ugazaba bazuen harrapakina nintzelakoan. Alabaina, pantomima hark ezin zezakeenez luzaroan iraun, aurrez hausnartua nuenari jarraiki, aurki *Gyula Kassák* nire lehengusua etortzekoa zela eta, ondorioz, igerilekurako lau bat neskato atseginen beharrean izango ginela, gutxienik, jaurtiki nien, AVOKo agente haren izena aipatzeak bere eragina izango zuelakoan. Eta hala izan zen: aitzinean nuen beltzaranari bederen bisaia erabat zurbildu zitzaion. Halere, betertzez ikusi ahal izan nuen bi metroko garaiera gertu izango zuen adats ilegorriko sai bat eskaileretan gora arineketan zihoala, Amyk zertan ote zebilen ikertzera, jakina. Ez nuen beta handirik. Amyk bainuontzian ezkutatuta eta gelako irratia pizturik utzi nituen arren, ondo baino hobeto nekien trikimailu haiekin une batzuk besterik ez nituela irabazten. Gauzak horrela, landetxearen sarrerako atetik pare bat metrotara lekutzen zen sai begi urdin musumotzari nire tramankulu hantua ukitu ziezadan gogo berotzen nenbilkiolarik, "*Don't you know you are my hero? Knock'em dead, Superman! Knock'em dead! I'll tell you how to hit the beat,*

Superman!", lizunki abesten nion artean, orduantxe bertan itzuli zen zalapartaka arestiko sai ilegorria, aretoko guztien arreta bereganatuz bere garrasi eta txillioekin. Ondorioz, azkenengo "Superman" hitza ahoskatzearekin bat, musumotzari eskuoihala jaurtiki eta zitzu bizian atera nintzen, guztiz biluzik, Amyren *Chevrolet Corvette* deskapotagarriaren bila. Dohatsuki, ibilgailuaren giltzak nahiz diru-zorroa —nortasun agiria eta txartelekina—, ezkerreko eskuan eskuoihalpean ezkutaturik eraman ahal izan nituen lasterka abian jarri artean. Oinutsik, harri koxkorren zastatekoak pairatuz, "Haizearen Semea" goitizenez ezaguna zen Carl Lewis lasterkariak baino azkarrago egingo nituen ibilgailuraino zeuden ia 200 metroak. Kontaktuari eragiteko unean, odola gatzaturik, atzerantz behatu nuen, sai haietakoren bat deskapotagarrian barnera jauziko ote zitzaidanaren beldurrez. Jaungoikoari esker —edo zuzenago esanez, soinean zeramatzaten orratz-takoizko oinetakoei esker—, irudikapen hutsa baino ez zen izan, nigandik urrunegi zirelako bigarren saiakeran ibilgailua abian jartzea lortu nuenean ere! Hantxe, sarbideko harmailetan geratu ziren, sai haietako dozena erdiren bat, arao eta biraoka!...". Mintzaldiaren ondoren beste etenaldi bat burutu zuen Urkok, eta gainontzeko guztiok gure bihotzak pil-pilean genituen bien bitartean, patxaran-kopari azken zurrutada bat eman zion. Jarraian, kontakizun harrigarri haren azken zertzeladak eskaini zizkigun: "Istorioaren gainontzeko xehetasunen azalpenekin ez zaituztet aspertu nahi, jakin ezazue soilik bidegurutzera heldu nintzenean, hirirantz zuzendu beharrean aireporturantz jo nuela, bidean, nire hoteleko harrerako emakume hura, gertatu zitzaidan guztiarekin nahasturik egon zitekeela hauteman ondoren. Egiazki, sorgin haren aholkuei jarraiki joan bainintzen *Geller* bainuetxera, hau da, lokamuts haren abiapuntura, eta bestalde, landetxeko Amyren gelaren zenbakia hoteleko nirearen berdina izatearen baterakidetasun susmagarriak, ehizakia landetxeko zein sai sarraskijaleri egokitzen zitzaion bereizteko metodo lazgarriren bat izan zitekeela hausnartzera ninderaman...

Hau guztia gutxi balitz, AVOk lagunak ere hor zeuden: ezinezkoa gertatzen zitzaidan hauen egoitza sektaren landetxetik hain gertu egonik, azken horretan gauzatzen ziren ekintzen berri izan ez zezaketarik irudikatzea! Ildo beretik jarraituz, sekta odolzale hartako partaideek, Polizia Politiko Saileko agenteen babesa ez ezik, laguntza ere jaso zezaketela ondorioztatzera heldu nintzen.

Horrenbestez, aireportura bidean, auzune bakarti batean geratu eta lehendabizi aurkitu nuen jantzi-dendara zuzendu nintzen. Bertatik egokiro jantzirik irten ahal izateko, nire itxura negargarrian beren funtsa zuten dendariaren zentzuzko goganbeharrak gailendu behar izan nituen, eta aurrez ordaintzea guztiz erabakigarria gertatu zitzaidan premiazko xede hura erdiesteko.

Aireportuan, Madrilen hegazkinez aldatu eta Bilborantz zetorren lehen hegaldia hartu nuen. Itomen eta izu-ikarazko zirrarara mingotsak lagun nituelarik egin nuen ihes infernuko zulo hartatik... Gertakizun hauei lotuta, gaur egun oraindik ere amesgaizto larriak izaten ditudala aitortu behar dizuet; areago oraindik, mesfidantza nahiz lastura tarteko, jazoera hauen berri inortxori ere emateko gauza ez naizela izan... gaurdaino!", ozen eta irmoki ahoskatu berba haiekin amaitu zuen Urkok, zinki, alegiazkoa zirudien edestia, beste behin ere, bere soara koadroko olagarroan ainguraturik uzten zuelarik.

Ongi gomutatzen naiz ondoren isiltasun egoskor batean jausi ginela istorioaren entzule izan ginen guztiok. Ziur nago "Olagarroaren Eresia" txokoan bizi ziren armiarmek, beren amaraunak egiteari ere utzi ziotela, sortu zen isilaldi haren erdian entzunak izango ote zirenaren beldurrez.

Kontakizunaren sorburua izan zen kikirrioaren neurriari buruzko eztabaida ebatzirik geratu zela orok genekusakeen, egiaz eta begiaz, Urkok bi abagunetan ere heriotzaren atzaparretatik ihes egin ahal izan baitzuen, bere tramankulari esker: bata, Amyren erasoaldian; aretoa zeharkatzerakoan saien arreta erakartzeko —hots, oharkabetasun osagai gisa— erabili zuenean, bestea. Urkok neurri ttattarreko zakila izan balu, Amyren aitzokada ez zuen saihestu ahal izango, beragandik gertuago izango zenez, nahitaez, sartu-irteneko jarduera hartan; Amyk zailtasunik gabe moztu izango ziokeen lepoa, Lekeitioko jaietan antzarrekin izan ohi duten baino erruki gutxiagorekin, gainera. Bestalde, aretoko antzezlanak —soldadutza egin genuenok oharkabetze maniobratzat hartu izango genukeena—, ez zitzaion baliagarria gertatu izango kikirrio kakanarru batekin, ez zukeenez zaintzan zeuden saien ernetasun maila jaistea erdietsiko.

Hori guztia garbi genekusakeenez, mingainak loturik edukiaz zerraigun. Agian, istorioak zituen ñabardura ugarien arabera, benetan jazo izan zitekeela onartu beharrak, gudan sor zezakeen jeloskortasun puntuak ere zerikusia izan zezakeen isilaldi haren iraupen tematian; zehazkiago, Urkok eduki behar zuen zakil eskergaren irudikatze hutsak piztu ziezagukeen txibizkeriaz mintzo naiz...

Eskuz ukitu ere egin zitekeen isilune trinko hura, azkenik, Budapesten gorriak ikusi zituen Urkok berak eten zuen: "Sinets diezadazuen eta zalantza izpirik izan ez dezazuen, *gauza* bat erakutsiko dizuet...", hitzak zuzendu zizkigun guztioi banan-banan so eginez. Uste dut denok burutapen berbera izan genuela, zinez, ez baitzirudien oso zaila *gauza* hori zer izan zitekeen igartzea. Halere, nola ez, Jaxinto izan zen lehenengoa erreakzionatzen: "Sooo, *Superman*, sinesten diagu!... Ez daukak benetan hire tramankulu galanta erakusten ibili beharrik, motel!", egin zuen garrasi zeharo asaldatutik, bere garaian plazak ederki betetzen zituen pilotari ohiak.

"Baina zer diok, Jaxinto?... Hori pentsatzea ere!", erantzun zion Urkok, haur bati errietan arituko balitzaio lez. Jarraian soinean zeraman ohiko idun garaiko jertsea erantsiaz, "Lepoan pairatu nuen labankadak utzitako ebakiondoaz ari nintzaizuen eta!", gaineratu zuen. Jakina ba!... Besteok gaitzespeneko begiradak zuzendu genizkion begitartea gorri-gorri jarri zitzaion Jaxinto gizajoari, era hartan, gogapen irrigarri hura izatetik urrun ibili ginenaren itxura egin baikenezakeen... "Aiii, Jaxinto: pilotan azkarra, eskolan motela!", ere entzun behar izan zuen gutako baten ahotik...